



LIBURUA

Literaturari



SANTIAGO BASALLO

INFINITUA IHI BATEAN

IRENE VALLEJO
ITZULTZAILEA:
FERNANDO REY

PAMIELA, 2021

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Irene Vallejo idazlearen liburu hau 2019an argitaratu zen gaztelaniaz. Interes gutxikoa izango zelakoan aritu zela esan izan du autoreak elkarriketa-
ren batean, eta harriduraz hartu duela izan duen arrakasta. Hainbat sari jaso ditu; besteak beste, Espainiako Saiakera saria eman zioten 2020an.

Saiakera bat da *Infinitua ihi batean*. Literaturaren historia bat. Literatura maite duen autore baten lumatik idatzia. Ikasketaz filologo klasikoa da Vallejo, eta saiakera idazteko erabili dituen tonuan eta estiloan nabari zaio proposatzen duen horrekiko interesa eta pasioa. Tonu akademikoa darabil, beroa eta goxoa; estiloa ahozketasunetik gertu dago. Bidaia liluragarri eta abenturazkoa Alexandrian hasten da, bertako liburutegia nola sortu zen kontatuaz. Literaturaren ertz uga-

riez ari da hainbat kapitulutan: idazleak, liburu objektua, liburutegiak, ipuin kontalariak, irakurleak, literatura irakasleak, liburu saltzaileak, kontu asmatzaileak, editoreak, liburuazainak, liburu dendak eta abar luze bat. Ekintzaren garaioan behatzearen, hausnartzearen, pentsatzearen beharraz ere badihardu liburuak. Literatura den mundu zabal horri izugarritzko omenaldia egiten dio Vallejok. Maitasun erakustaldi handia da.

Ematen dituen datu, bertsio eta informazio guztiak irakurrita, Vallejok ikerketa sakon eta zehatza egin duela eta liburu urteetako lanaren emaitza dela ondoriozta genezake.

Konbinazio orekatua eta harmonia-tsua lortzen du autoreak: saiakera batek eman behar dituen datuak ematen ditu eta ikerketa baten zehaztasuna du, alde

batetik. Askok ikasten da 450 orrialdeetan barrena. Eta, bestetik, ahozketasunaren magiak eta gertutasunak limurtu egiten gaituzte, Xerezaderen kontakizunek egiten duten bezala.

Fernando Reyk bikain itzuli duen liburu hau urte aldaketarako zubi izan dela aitortu behar dizuet. Liburu honekin ibili dut 2021etik 2022rako bidea. Urteko azken liburu eta urteko lehena izan da. Pena izugarria eman dit bidaia amaitzeaz zela ohartzeak, eskumako aldean gero eta orri gutxiago izateak, liburuaren pisua ezkerreko eskuarekin eutsi behar izateak. Letra hauen lerroetatik infinituki bidaiaitzen jarraitu nahi nuke. Irakurketa itxaropentsua izan da, zalan-tzarik gabe.

Irakurketa ugariko urtea izan dadila 2022a, urte berri on! ●